

ARAZO EGOERA

GIZALDIZ GIZALDI GURE HERRIAN

ARLOA: Gizarte Zientziak, Natur Zientziak

MAILA: DBH osoa

OHARRA

Arazo egoera honek Aralar inguruko irudi eta bideoak dituen arren, Euskal Herriko txoko askotara molda daiteke. Kasu honetan, irakasle bakoitzak bere herriko gune arkeologikoen 4 argazki (edo gehiago) erabil ditzake gaia hasteko.



TESTUINGURUA

Afalorduan gurasoek esan dizute oporretan ezagututako familia bat zue herrira bisitan etortzekoa dela, eta, oso jende atsegina denez, gustura jaso duzu berria. Dena den, gurasoek laguntza eskatu dizute haien egonaldirako ekintza bat antolatzeko; beraz, lan pixka bat egin beharko duzu.

Bisitan datorren familia horretako amari asko interesatzen zaizkio arkeologia eta historia, eta, familia guztiak mendian ibiltzea oso gustuko duenez, bi gaiak uztartuko dituen plan bat egitea otu zaizu.

ARAZOA

Inguruko ondare arkeologikoa ezagutzeko ibilalditxo bat antolatu behar duzu, eta zu izango zara gidaria. Horretarako, informazio bila hasi zara. Lehen pauso gisa, udalaren webguneko “Ezagutu ondarea” atalera jo duzu. Idatzizko informazio gutxi dago, baina honako lau irudi hauek aurkitu dituzu bertan. Hasiera ona dirudi...



XEDEA

Historian zehar zure herriak eta bertako biztanleek izan duten bilakaera ezagutzea, bertan bizi izandako gizartearen bizimodua aztertuz eta haiek sorturiko paisaiaren eraldaketaz jabetuz.

HELBURUAK

- Eskualdeko oinarrizko elementu arkeologikoak identifikatzea eta haien denboran kokatzea.
- Eskualdeko ingurune fisikoa osatzen duten elementuak mapan kokatu eta leku horietako ezaugarri nagusiak aztertzea.
- Elementu horietako bakoitzaren ezaugarrien azterketa sakon bat egitea, informazio-iturri bat baino gehiago erabiliz, gizakion bizitza nola aldatu den jakiteko eta, aldi berean, giza ekintzek paisaia nola eraldatu duten ohartzeko.
- Historiaurreko gizakien nahiz haien sorturiko paisaiaren inguruan hipotesi erraz batzuk proposatzea, azaltzea eta egiaztatzea.
- Gizakiaren ekintzek zein gizarte arazo eta ingurumen arazo sortzen dituzten identifikatzea eta horretaz kontziente izatea.
- Gaur egungo eta Historiaurreko bizimoduen artean zer-nolako desberdintasunak dauden identifikatzea.
- Ondarea ezagutu eta zaintzeko beharraz kontzientziatzea.

ATAZA

Interesekoak izan daitezken puntuetatik igaroko den mendi ibilaldi bat diseinatu. Ikasleek irteera egiten duten egunean, intereseko puntu bakoitzean dagokion taldeak azalpenak eman beharko ditu, gidari turistikoak balira bezala. Geldialdi bakoitzean gure ingurunearen eta paisaiaren bilakaeraren inguruan hausnartuko da.

JARRAIBIDEAK

- Naturan hezten proiektuak gomendaturiko **bideoak ikusi** gaian murgiltzeko.
- Arazo egoera aurkeztu ondoren, ikasleak 3-4ko taldetan banatuko dira. Lantalde bakoitzak argazki bakoitzak ordezkatzeko duen garaia **landuko du** (megalitoak, Erdi Aroa, artzaintza, meatzeak), eta gero beste taldeei emango die landutakoaren berri.
 - Irudian agertzen den objektu edo lekua zer den identifikatu.
 - Objektu edo lekuak eskualde mailan duen kokapena zehaztu. (Baliabidea: Aralar)
 - Objektu edo lekua eta haren eraikuntza/erabilpena denboran kokatu.
 - Objektu edo leku zehatz hori gizakiak zertarako erabili zuen aztertu.
 - Gizakiak objektu edo leku hori erabiltzen zueneko testuingurua eta orduko ingurunearen/paisaiaren ezaugarriak aztertu, eta horri loturiko hipotesi errazak proposatu.
 - Garai hartatik hona gizarteak eta inguruneak izan duten bilakaera aztertu.
- Behin lanketa eginda, ikastetxetik edo inguruko abiapuntu batetik hasi eta intereseko gune guztietatik igaroko den **ibilaldi bat diseinatu** guztien artean.
- Ibilaldiko geldialdietan talde bakoitzak eman beharreko **azalpenak prestatu**.
- Prozesua eta ikaspena ebaluatu (**koebaluazioa eta autoebaluazioa**).
- **Ikasleek natura eta haren elementuak ezagut eta maita ditzaten, ezinbestekotzat jotzen dugu arazo egoera bakoitzaren ostean gaiarekin erlazioa duen irteera bat egitea.**